

## KOSTUEN EGITURA

Kostuak bultzatutako negozio-eredua izango da, hots, kostuak minimizatzera bideratuko dira. Horretarako, eskuz egin beharreko lana guk egingo dugu soldatarik ez ordaintzeko. Aurrera begira, negozio-eredu berarekin jarraitzeko, eskuz egin beharreko lana gehiegizkoa bada, josteko makina automatikoak erosiko dira edo lan hori beste enpresa baten esku utzi. Horrela, beste enpresekin akordio batera iritsiz gero, posible litzateke lan hori merkeago edo dohain ateratzea poltsetan euren publizitatea egiteagatik, adibidez.